

## AITAREN AURREAN KANTARI

1

Agur Jainko laztana  
gure Aita-Ama!  
Hau sinisteak maite-lokarriz  
Zugana narama

2

Zu gure hasiera  
eta amaiera,  
ta bidean Zeu zaitugu lagun  
Aita bihozbera.

3

Hau da hau Barri Ona  
Jesusek dinona:  
Aita zarala ta nahi dozula  
gure zoriona.

4

Hau da hau maitasuna  
Aita, deuskuzuna!  
Jesusen bidez Zu zara gure  
betiko Laguna.

5

Maite gaituzu doan  
ezin gehiagoan,  
nahizta Zugandik guk alde egin  
Zu beti ondoan.

6

Nork entzun dau sekula  
Aita zaitugula!  
Egizu, Aita, bene-benetan  
sinistu daigula

7

Jainkoa Aita bada  
gu seme-alaba;  
guk Zu goستن emon nahi  
dogu  
eguna ta gaba

8

Zenbat gaituzun maita,  
o zeruko Aita!  
Seme-alaba egin gaituzu  
Zeuk halantxe nahita.

9

Maitasunez kantari  
zeruko Aitari:  
Zu maitatzea, besterik gabe,  
bada nahiko sari.

10

Kantuz gaukazuz, Aita  
orain eta beti:  
"Zeru-lurretan zeruko Aita  
goratua bedi!

A.Martzel